

ARIKETAK

1 HIZTEGI BATUA

1. a) Osabidea hartu behar da **al bait** arinen; sasoiz hasiz gero, laster gainditzekoa da-eta.
b) Osabidea hartu behar da **ahal bait** arinen; sasoiz hasiz gero, laster gainditzekoa da-eta.
c) Osabidea hartu behar da **ahal-bait** arinen; sasoiz hasiz gero, laster gainditzekoa da-eta.
2. a) Bestalde, landa-aristokrazia ere **amankomunatu** egin zen estatu lauaren kontra, botere guneez guztiz jabetzeko asmoz.
b) Bestalde, landa-aristokrazia ere **mankomunatu** egin zen estatu lauaren kontra, botere guneez guztiz jabetzeko asmoz.
c) Bestalde, landa-aristokrazia ere **elkartu** egin zen estatu lauaren kontra, botere guneez guztiz jabetzeko asmoz.
3. a) Demonstraturik dago **entzulegoari** graziaz gehien egiten dion bertso klasea azken kolpe fuerteko bertsoa dela.
b) Demonstraturik dago **entzuleriari** graziaz gehien egiten dion bertso klasea azken kolpe fuerteko bertsoa dela.
c) Demonstraturik dago **entzuleei** graziaz gehien egiten dien bertso klasea azken kolpe fuerteko bertsoa dela.
4. a) Gutunazalاک Gipuzkoako Foru Aldundiko Sarrera **Erregistro** Nagusian aurkeztu beharko dira datorren uztailaren 16a baino lehen.
b) Gutunazalاک Gipuzkoako Foru Aldundiko Sarrera **Errejistro** Nagusian aurkeztu beharko dira datorren uztailaren 16a baino lehen.
5. a) **Grua** eta kamioiek erabat arindu zuten egurra eramateko zeregina.
b) **Garabi** eta kamioiek erabat arindu zuten egurra eramateko zeregina.
6. a) Zein da komunikabideek zure pertsona edo enpresari buruz **islatzen** duten irudia?
b) Zein da komunikabideek zure pertsona edo enpresari buruz **isladatzen** duten irudia?
7. a) **Magisteritza Eskolan**, Amazoniako herri indigenen inguruko hitzaldia izango dugu uztailaren 15ean, arratsaldeko seietan.
b) **Magisteritza-Eskolan**, Amazoniako herri indigenen inguruko hitzaldia izango dugu uztailaren 15ean, arratsaldeko seietan.
c) **Irakasle-eskolan**, Amazoniako herri indigenen inguruko hitzaldia izango dugu uztailaren 15ean, arratsaldeko seietan.
8. a) Lehen **ministrari** txinatar Li Pengek azaldu zuen marxismo-leninismoaren bideari eutsiko ziola Txinak.
b) Lehen **ministro** txinatar Li Pengek azaldu zuen marxismo-leninismoaren bideari eutsiko ziola Txinak.
9. a) Bigarrenez, A-1 eta A-8 autobideen **bidesariak** kentzea proposatu zuten
b) Bigarrenez, A-1 eta A-8 autobideen **bide-sariak** kentzea proposatu zuten.
c) Bigarrenez, A-1 eta A-8 autobideen **peajeak** kentzea proposatu zuten.
10. a) Kontratua bukatzean, **zertifikatu** batean jasoko ditugu ikaskuntzaren iraupena eta eskuratutako prestakuntza praktikoaren maila.
b) Kontratua bukatzean, **sinestamendu** batean jasoko ditugu ikaskuntzaren iraupena eta eskuratutako prestakuntza praktikoaren maila.
c) Kontratua bukatzean, **ziurtagiri** batean jasoko ditugu ikaskuntzaren iraupena eta eskuratutako prestakuntza praktikoaren maila.
11. a) Hau da gaurko Mendebaldeko gizartearen kasua; gizon batek bainujantzi bat besterik ez duela egin lezake igerian hiri erdiko **igerilekuan**, baina ziur asko ez litzateke horrela kalera irtengo.
b) Hau da gaurko Mendebaldeko gizartearen kasua; gizon batek bainujantzi bat besterik ez duela egin lezake igerian hiri erdiko **piszinan**, baina ziur asko ez litzateke horrela kalera irtengo.
12. a) Suerte pixka batekin lehenengoan atera dezakezu **karneta**.
b) Suerte pixka batekin lehenengoan atera dezakezu **gidabaimena**.
c) Suerte pixka batekin lehenengoan atera dezakezu **gidatzeko karneta**.
13. a) Sagarroiak ez ditu **insektuak** bakarrik jaten; zizareak, barakuiluak, igelak, muskerrak, sugeak eta xaguak ere oso gogoko ditu.
b) Sagarroiak ez ditu **intsektuak** bakarrik jaten; zizareak, barakuiluak, igelak, muskerrak, sugeak eta xaguak ere oso gogoko ditu.

A R I K E T A K

14. a) Kantauri itsasoa **asarre** daukagu.
b) Kantauri itsasoa **hasarre** daukagu.
c) Kantauri itsasoa **haserre** daukagu.
15. a) Aintzinatean eskiatzaileek eski luzeagoa erabiltzen zuten ezker oinean eta larruz jantzitako motzagoa **eskubian**.
b) Aintzinatean eskiatzaileek eski luzeagoa erabiltzen zuten ezker oinean eta larruz jantzitako motzagoa **eskuman**.
c) Aintzinatean eskiatzaileek eski luzeagoa erabiltzen zuten ezker oinean eta larruz jantzitako motzagoa **eskuinean**.
16. a) Giza Eskubideen Deklarazioaren **bosgarren** artikulua espresatzeko eskubidea damaio edonori.
b) Giza Eskubideen Deklarazioaren **boskarren** artikulua espresatzeko eskubidea damaio edonori.
c) Giza Eskubideen Deklarazioaren **bostgarren** artikulua espresatzeko eskubidea damaio edonori.
17. a) Gure lana informazio ona lortu eta irakurleei ahalik eta txukunen eskaintzea izan da: datu gordinak jaso, **bereiztu**, sailkatu, antolatu eta erredaktatzea.
b) Gure lana informazio ona lortu eta irakurleei ahalik eta txukunen eskaintzea izan da: datu gordinak jaso, **bereizitu**, sailkatu, antolatu eta erredaktatzea.
c) Gure lana informazio ona lortu eta irakurleei ahalik eta txukunen eskaintzea izan da: datu gordinak jaso, **bereizi**, sailkatu, antolatu eta erredaktatzea.
18. a) Herriak itxaropenaren indarrez bizi dira **batik-bat**.
b) Herriak itxaropenaren indarrez bizi dira **batik bat**.
c) Herriak itxaropenaren indarrez bizi dira **batipat**.
19. a) Gainera, **ikasgai** solteetarako matrikula egin ahal izango dute ikasleek.
b) Gainera, **asignatura** solteetarako matrikula egin ahal izango dute ikasleek.
20. a) Badakit, bai, jakin, ene kontzientziak eskatzen didanari ez entzunarena egitea ez dagoela ongi, badakit "guztiek egiten dute" hori **atxakia** huts bat besterik ez dela.
b) Badakit, bai, jakin, ene kontzientziak eskatzen didanari ez entzunarena egitea ez dagoela ongi, badakit "guztiek egiten dute" hori **aifzaki** huts bat besterik ez dela.
c) Badakit, bai, jakin, ene kontzientziak eskatzen didanari ez entzunarena egitea ez dagoela ongi, badakit "guztiek egiten dute" hori **aifzakia** huts bat besterik ez dela.



Gramatika ataleko aholkuak jarraitu eta bete hutsuneak:

1. Euskal Herriari gagozkiola, proiektua "H" handi baten itxura hartzen duen 460 km luzerako trenbide sare bat izango da.
a) AHT-aren b) AHTren c) AHTen d) AHTaren
2. Bilbao Basket arituko da.
a) ACB-n b) ACBn c) ACBen
3. «Errentagarritasunean oinarritutako hazkundea». Horixe da helburu nagusia datozen hiru urte-
etarako. Iralak aurrezki kuxkako 100 kontseilari nagusi berrien izendapena balliatu zuen «estrategia
aldaketaz» ohartarazteko. nagusigoari eusten dio Bizkaian.
a) BBK-ren / BBKk b) BBKren / BBK-k c) BBKren / BBKk
4. MIKEL IRUJO HERRIEN EUROPA KOALIZIOKO HAUTAGAIA:
«Estatutik gabeko nazio guztiak ordezkatzeko dugu lehentasun».
a) EAREN b) EA-ren c) EA-REN
5. Krisi larria gainditzeko, kooperatiba bihurtzea erabaki zuten Loramendi enpresako langileek,
laguntzarekin.
a) MCCren b) MCC-ren c) MCCen
6. autogobernuaren aurka PPren politika jarraitzea leporatu dio PSOeri Hezkuntza sailburuak.
a) EAEko b) EAE-ko c) EAEKO
7. "Egungo normalizazio lanak Euskal Herria euskalduntzera al garamatza?" izenburuko solasaldia egin-
go dute gaur Gasteizko Euskadiko Kuxaren aretoan. Ane Agirregomezkorta,
Administrazio Kontseiluko idazkari Joan Mari Larrarte eta Ikastolen Elkarteak Joseba Aginagalde izan-
go dira hizlari.
a) AEK-ko / EKT-ko b) AEKko / EKTko c) AEK-ko / EKTko

A R I K E T A K

8. Kalean CD piratak saltzen dituztenek polizien jazarpena pairatzen dute. Udaltzaingoa agertzean betetako manta di-da batean batzen duen eforkinaren irudia ohikoa da Bilbon. Manta azkar batzen trebetasun itzela izan arren, batzuetan ez dute astirik izaten eta kalean geratzen dira, udaltzainen esku.

- a) CDz / CDak b) CD-z / CD-ak c) CDz / CD-k

3 Gramatika ataleko aholkuak jarraituz, eman ondoko esaldien ordain egokiak:

1. Dokumentu guztiek dute diseinu egokia; ziurtagiri horrek, ordea, ez.

- a) _____ izan ezik, _____
b) _____ ez beste _____

2. Denak musikaren profesionalak dira eta tituludunak, eta hiru ez beste guztiek lanorduek banatu egiten dituzte.

- a) _____, eta _____ izan ezik, _____

3. Neu bakarrik gelditu naiz joan barik.

- a) _____ izan ezik, _____
b) _____ ez beste _____

4. Amari ez beste inori ez zion uzten ukitzen.

- a) _____ izan ezik, _____
b) _____ bakarrik _____

5. Abuztuan izan ezik, gainerako hilabeteetan klaseak emango dira.

- a) _____ ez beste _____

6. Orri horia soilik utzi behar da bete gabe; gainontzekoak bete egin behar dira.

- a) _____ izan ezik, _____
b) _____ ez beste _____

7. *Gu gara etika eta estetika bereizteko gai ez garenok.

- a) Gu ez _____
b) Gu _____-ak

8. *Zuek zarete Alkatetzaren erantzukizun hori osoko bilkurara ekarri nahi ez duzuenok.

- a) Zuek ez _____
b) Zuek _____-ak

9. *Gu gara autodeterminazio-eskubide unibertsalaren alde gaudenok.

- a) Gu _____
b) Gu _____-ak

10. *Zu eta biok gara etxe honetako gurasook, irakasleok eta langileok.

- a) Zu eta biok _____

4 Instrukzioak

Horra hor hainbat argibide pilatuta. Saia zaitetz argibide horiek zatitzen, ordenatzen eta zenbatzen. Jarri izenburua eta oharra bere tokian, eta ikusiko duzu zeinen ederki ulertuko diren!

Lagun batekin hitz egin nahi, deitu telefonoz eta... komunikatzen! Zer egin dezakegu bukatzen duenean, gurekin hitz egin dezan?

Nola utzi telefono deia zain

Lagun horren zenbakia markatu behar dugu telefonoa jaso ondoren. Beste norbaitekin hitz egiten badago, 6 zenbakia markatuko dugu eta telefonoa esekiko dugu (IVAPen 6 zenbakia erabiltzen dugu zeregin horretarako. Beste erakunde batzuek ere izango dute deia zain uzteko zenbakiren bat, eta ezertan hasi baino lehen galdetu eta jakin zain den). Itxaron egingo dugu.

Gure lagunak telefonoa esekitzen duenean, gure aparatoak abisatu egingo digu: deika hasiko zaigu; orduan, telefonoa jasoko dugu, eta jasotzen dugun momentuan gure lagunari hasiko zaio deika aparatoa. Berak ere jasotzen badu, hitz egingo dugu.

SOLUZIOAK

1 HIZTEGI BATUA

- | | |
|----------|--------------------|
| 1. a | 11. a |
| 2. c | 12. b |
| 3. b, c | 13. b |
| 4. a | 14. c |
| 5. b | 15. c, bizaieraz b |
| 6. a | 16. a |
| 7. c | 17. c |
| 8. b | 18. b |
| 9. a | 19. a |
| 10. b, c | 20. c |

2 SIGLAK

- | | |
|------|------|
| 1. b | 5. a |
| 2. b | 6. a |
| 3. b | 7. c |
| 4. c | 8. a |

3 BERRIDATZIAK

- Ziurtagiri horrek izan ezik, gainerako dokumentu guztiek diseinu egokia dute. Ziurtagiri horrek ez beste dokumentu guztiek diseinu egokia dute.
Onargarria da era berean: *ziurtagiri hori izan ezik*; eta erabilia, gutxienez, (onargarria ez dakigu) *ziurtagiri hori ez beste*.
- Denak musikaren profesionalak dira eta tituludunak, eta hiruk/hiru izan ezik, beste guztiek lanor-
duak banatu egiten dituzte.
- Neu izan ezik, beste guztiak joan egin dira.
Neu ez beste guztiak joan egin dira.
- Amari izan ezik, beste inori ez zion uzten ukitzen.
Amari bakarrik uzten zion ukitzen.
- Abuztuan ez beste hilabeteetan klaseak emango dira.
- Orrri horia izan ezik, gainontzekoak bete egin behar dira.
Orrri horia ez beste guztiak bete egin behar dira.
- Gu ez gara gai etika eta estetika bereizteko.
Gu gara etika eta estetika bereizteko gai ez garenak/direnak.
- Zuek ez duzue Alkatetzaren erantzukizun hori osoko bilkurara ekarri nahi izan.
Zuek zarete Alkatetzaren erantzukizun hori osoko bilkurara ekarri nahi izan ez duzuenak.
- Geu gaude autodeterminazio-eskubide unibertsalaren alde.
Gu gara autodeterminazio-eskubide unibertsalaren alde gaudenak/daudenak.
- Zu eta biok gara etxe honetako guraso, irakasle eta langileak.
Zu eta biok gara etxe honetako gurasoak, irakasleak eta langileak

4 INSTRUKZIOAK

NOLA UTZI TELEFONO DEIA ZAIN

Lagun batekin hitz egin nahi, deitu telefonoz eta... komunikatzen! Zer egin dezakegu bukatzen duenean, gurekin hitz egin dezan?

- Jaso telefona.
- Markatu lagun horren zenbakia.
- Beste norbaitekin hitz egiten badago, markatu 6 zenbakia¹.
- Eseki telefona.
- Itxaron.
- Gure lagunak telefona esekitzen duenean, gure aparatoak abisatu egingo digu: deika hasiko zaigu.
- Telefona jasoko dugu, eta jasotzen dugun momentuan gure lagunari hasiko zaio deika aparatoa.
- Jasotzen badu, hitz egingo dugu.

¹ IVAPen 6 zenbakia erabiltzen dugu zeregin horretarako. Beste erakunde batzuek ere izango dute deia zain uzteko zenbakiren bat eta, ezertan hasi baino lehen, galdetu eta jakin zein den.